



NEKANE TXAPARTEGI
KAZETARI FEMINISTA

Emakume* gorputza, erresistentzia territorio

Caliban eta sorgina irakurri nuenean, ez nuen uste Euskal Herriko erresistentziari aipamena egiten zion idazlea noizbait topatuko nuenik. Joan berri den abuztuan, ordea, aukera izan nuen Silvia Federici elkarrizketatzeko eta idazle eta pentsalari feminista antikapitalista pertsonalki ezagutzeko Zurichen.

Irribarrea ahoan, *zerbait ari da gertatzen* esanez hasi zuen Zuricheko hitzaldia, euripean beteriko harmailei begira. Horri buruz galdetu genion irratiko erredakzio feministakook gero, zer esan nahi ote zuen hitz horiek. “Hainbeste jende hemen batzeak ez du Federicirekin zer ikusirik, baizik eta gero eta gehiago direla, konturatzen direnak, emergentzia batean bizi garela”.

“Bizitzaren prekarizazioa eta komertzializazioa, migrazio hiltzailea, feminizidioak, etorkizuna desastrea da eta jendea horren jakitun da. Orain kontua da nola antolatu, nola borrokatu hori eraldatzeko. Ez gaizki dagoenaren kontra, guk eraiki nahi dugun horren alde baizik”. Akademiako askok ez bezala, Abya Yalako emakume indigenen erresistentziak izan zituen eredu, komunitate borrokak mintzagai. Europa txuri kapitalista honetan, arrotz berak aipatutako antolatze moduak, indibiduoak, identitatea, ni-a eta egoa erdigunean diren mugimenduetan. Niretzat berriz,

Euskal Herri okupatu bezala bizitako erresistentziak pentsagai.

Nire gorputza territorio bilakatzearen kontzeptuaz aritu zen eta horren esanahiaren bi zentzuez, gorputza defendatzea delako lurra, herria, defendatzea eta ondorioz baita bizitza ere. Ezin ditugu gure emakume* gorputzak atzera irabazi, ez badugu bizi garen lurra, territoria, irabazten. Lotura hori beharrezkoa dugu, leku segurua aske bizitzeko, eta kapitalismoa behin eta berriz hori eteten saiatzen da. Dantzatu, besarkatu, elkartrukatu, arazoez hitz egin... Gorputza borrokarekiko, lurrarekiko, herriarekiko lotura da.

Gure emakume* gorputzen kontrola etengabekoa da hainbat garaitan eta hainbat testuinguru politikotan. Gorputz hutsak bezala definituak, zentzurik gabekoak, lanak gorputz horren arabera banatuz, biologikoki-naturalki: etxeko zaintza, amatasuna... Sorgin ehizatik hasi eta gaur egun arte patriarkatuak diziplinatu nahi gaitu gure gorputzak okupatuz, bortxatuz eta erailez. Kapitalismoak, berriz, horiek ustiatzen ditu eta zaintza lanei balioa kentzen die.

Horregatik, gorputz okupatuak antolatuz eta erresistentzia territorio bihurtuz, greba feminista izango dugu tresna Euskal Herrian: kalean, espetxeetan, etxean eta lantokietan gure bizitzak erdigunerara ekartzeko eta sistema iraultzeko! ●



LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA

Espainol Herria

Sarritan gertatu zait Iparraldean euskaraz egin eta parekoak gaztelaniaz erantzutea. Iparraldekoie ere gertatu izan zaie. Beraz, espainieraz egiten digutenen buruan, besteak beste, ideia hau dago: euskara = Espainia.

Espainiako Vuelta txirrindularitza lasterketan *Televisión Españolako* esatariak jaurti zuen espainol batuan: Ehüjarreko arroila, Zuberoan, espainiar eragina duen Frantziako hiru probintzietako bat. Espainiar esan aurretik geldialdi bat egin zuen, *provincia vasca* esango zuela ematen zuen, baina hobeto pentsatu, eta *vasca* izanez gero nola liteke frantziarra izan

hausnartu, eta Espainiarako bereganatu zuen. Euskal = espainiarra.

Espainiar batzuek defendatu dute Espainiako Parlamentuan euskara erabili ahal izatea: euskara ere estatuko hizkuntza da; beraz, espainiarra ere bada. Asmo onez, baina integrazioa helburu. Euskara = Espainiako.

Geuk ere ez dakit ez ote dugun ideia hori indartzen jarrera batzuk kontuan hartuta: gaztelaniaz jardunda gure artean, *euskañola* erabilia, edota Espainiako Estatuko zenbait ohitura gure eginda.

Espainol Herria bihurtu ote dugu Euskal Herria? Arrazoia ote du *DNI*ak? ●